

**1640/2022 EBAZPENA, irailaren 2koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko buru hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

#### AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 27ko 975/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko abuztuaren 2ko EHAA 148 zk. eta 2022ko abuztuaren 8ko BOE 189 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 30ean amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak bidez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Plaza de Cruces, 12 – 48903 BARAKALDO (Bizkaia)

Tel. 94 600 6000

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2022ko irailaren 2a



---

**Osakidetza**  
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,  
María Luz Marqués González

**EZKERRALDE-ENKARTERRI-CRUCES ESI**  
**OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES**  
**GERENTZIA**  
**CRUCES**

---



**ERANSKINA**

**Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI**

**ONKOLOGIA MEDIKOKO ZERBITZUBURU SANITARIOA**

**BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK**

**Onartuak:**

D. Alberto Muñoz Llarena jn.

D. Ricardo Fernández Rodríguez jn.

**Baztertuak:**

Inor ez